

ZIRTAK

Jose Inazio Basterretxea

IDAZLEA

Urruti gabe

**G** arai ezinago zaharretan, unibertsoa sortzen ari zen sasoi urrun hartan, lagun minak ziren mendiak: batera bizi eta batera ibiltzen ziren. Aro ahaztu haietan, itsaso bakarra osatzen zuten aintzirek. Adiskideak ziren animaliak.

Izarrak jaio, planetetan argia egin, eta mundura ur edangarria nahiz habitagarria heldu zen une zoragarri hartan, elkarbizitza koloretsuak gidatzen zuen izadiaren norabidea. Eta pinguinoen orkestra sinfoniko batek alaitzen zituen egunero animalien eta gizakien afariak.

Halere, ezelako abisurik gabe eta bat-batean, erabat transformatu zen mundu hura: goitik behera. Itsasoa galdu zuten ibaiek. Zikindu egin ziren elurrak. Itzali, suak... Arrazoia? Bi hankako animalia zuri bat ekarri zuen oinaztarriak lurren eta itsasoen gainera: Errege jauna. Ona egin zen behazun. Txarra, zorne.

**BI BEGIKO ESKOPETA.** Marfila ebatsi, eta zigorra oparitzen hasi zen Gorentasuna. Urrea lapurtu, eta lan behartua ezartzen. Denbora librean, ankerkeriazko legeak asmatzen ematen ez zuen denbora horretan, matrail-hezurrera hurbildu begi biko eskopeta, eta tiro egiten zion Errege hark parean jartzen zioten orori: botila hutsa, baratzetako txorimaloa nahiz orgetako gurpila.

Ontzi eta trasteekin aspertu zenean, tiro egin zien anaiari, semeari, Afrikako zebrari nahiz Urdeetako zerriari. Ehizatu zituen gepardo jaspeztatuak, arrano beltzak, krokodilo negartiak, eta kobra txistulariak.

Gorteetako lagunak gonbidatu zituen ehizara, eta abiarazi zuen turismo deriztzen izurrite urbanoa. Hurbildu zitzaizkion apaizak, militarrek, bulegariak, bankariak, suhiltzaileak, kazetariak...

Bi begiko eskopetari esker, ehiztari aben-



INIGO AZKONA

turazaleak tiro batekin asmatzen ez bazuen, bigarrenarekin zartatzen zuen sarraskia. Eta, menturaz ez batarekin ez bestearekin asmatzen ez bazuen ere, esker oneko izan zitekeen, zeren –lurra zenez ezinago aberatsa– tiro alderraiak eragindako luberrietan petrolio putzua irekitzen baitzen –edo mea: diamantezkoa, ikatzezkoa, kobrezkoa, uraniozkoa, nikelezkoa...–.

**ELEFANTEAREN ESKEA.** Tembo elefantearen kexua eragin zuten mandatari haien desmasiek. Simba lehoiaren haserrea piztu zuten zaku hautsirik gabeko diamante-biltzaile haiek. Nyati bufaloaren amorrua ekarri zuten turistek, erreka uretan ahaztuta uzten baitzituzten kalekume gaixoek argazki-kameraen bateriak.

Ezinegona esnatu, eta sabana osoa matxinatu zen: nor bere aldetik, batasunik gabe. Saiak borrokatu ziren airean. Sugeak eta dorkak, uretan. Antilopeak eta ganbeluak, lurrean... Finean, lasto-sua, hura dena.

Ad aeternum-eko bidea hartu, eta izugarri luzatu zen eztabaida animalien artean: zer egin? Atzeratu egin zen denentzako balio beharko zuen estrategia komunaren diseinua... zer egin? Geroratu, behazunezko olatuaren kontrako taktika zehatzaren onarpena... zer egin?

Baina, azkenean bai: bat etorri, eta esan zuten animaliek ezen, dena goibeldu eta erori zela bat-batean gizaki-klase berri hura –errege eta akolitoena– sortu zenez geroztik. Sabanaz sabana zabaldu zuten, ezen horien eskutik etorri zirela zornea eta eritasunak oro. Halere, zer egin?

Indarrak batu eta gizaki-klase berri horren aurkako fronte komuna

eraikitzeko, mikrofonoa hartuta, grabe-grabe, han bota zuen Tembo elefanteak bere aldarria: fuera errege, urruti gabe! ■



irudia:

Antton Olariaga

